

Etekin potentzial txikiagoa. Arrisku txikiagoa.

Etekin potentzial handiagoa. Arrisku handiagoa.

1 2 3 4 5 6 7

Kutxabank Burtsa Globala Pentsio Fondoaren arrisku-maila 6 da, 1etik 7rako eskalaren barruan. Aurreikuspen hori fondo bakoitzaren ondarea inbertituko den aktibo-moten bilakaera historikoan oinarrituta egin da. Horrez gain, aurreikusitakoaren arabera fondo bakoitzaren ondarea inbertituko den aktibo-moten bilakaera historikoan oinarritu da. Hala ere, arrisku-maila bakoitza inoiz alda daitekeenez, adierazlea neurri estatikoa da eta ez du aurreitazio irizirik eskaintzen planen etorkizuneko arriskuari buruz.

●● Prestazioa kobratu edo berreskuratu ahal izango da soilik pentsio-planen eta pentsio-fondoan araudian araututako likideziazko aparteko gertaeraren edo balizkoren bat gertatzen bada. ●● Leku adatzeko eskubideen, prestazioen eta likideziazko aparteko balizkoren balioa pentsio-fondoaren aktiboaren merkatuko balioaren arabera aldatu daiteke. Indarreko araudiarekin bat etorrita, Pentsio Plan bakoitzeko partaidearentzako Oinarritzko Datuen Agiri bana dago, horiek guztiak www.kutxabank.es webgunean argitaratuta. Kutxabankeko Pentsio Planen eta horietako bakoitzari lotutako arrisku-indizearen kontsulta hurrengo webgunean egin daiteke: www.kutxabank.es/pentsioan

ERRENTA ALDAKORRA 2021/AZAROA/30

KUTXABANK BURTSA GLOBALA PF



PUBLIZITATEA

INBERTSIO POLITIKA

Fondoa errenta aldakorreko fondo bat bezala eratu da; hortaz, ondarearen % 75 baino gehiago Nazioarteko Errenta Aldakorrean inbertituko du. Fondoak aktibo motekiko duen esposizioa lortzeko, inbertsio zuzenak egin ahal izango dira horietan, baita inbertsioak ere finantza-tresna eratorrietan.

2021/11/30era Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa*	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5
-2,81	-2,20	%12,07	%14,83	%9,61	%7,35

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekoitzen.

2021	2020	2019	2018	2017	2016
%12,07	%3,13	%21,76	%-13,18	%11,81	%3,31

*Iraganeko errentagarritasunak ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

2021/11/30era Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte	%10,88
Lurrunkortasun 3 urte	%17,45

HILEKO IRUZKINA

Azaroa enpresen hirugarren hiru hilekoko emaitzen argitalpenean murgilduta hasi zen: urte arteko % +40 eta % +50 arteko hazkuntza utzi zigun irabazietan, eta hurrengo hiru hilekoetarako ereduaren hobekuntza, nahiz eta kostuetan igoerak eta hornigaien eskasi arazoak eman diren. Enpresen emaitza sendak agertuz jarraitzen zuten bitartean, inbertsiogileek berriro ere inflazioa eta banku zentralen bilereetan jarri zuten begirada. Orokorrean, EEBBetako inflazioaren datua zen gehien espero zen erreferentzia. Datua uste baino handiagoa izan zen, merkatuaren adostasun aurreikuspenak birrindu ondoren: urte arteko % +6,2koa izan zen (espero zena % +5,8koa zen). Horrek presioa areagotu zuen Erreserba Federalarengan. Azken hau ez zen gidoitik ateratzatzen eta bere posizioari eusten zion inflazioaren iragankortasunari dagokionez, baina jada itxura

oldarkorreragoa ageri zuen erakundeko kide batzuen eskutik eta Powell berriro presidente izateko izendapenarekin. Aldiz, Erresuma Batuko Banku Zentralak, aurreikuspen guztien kontra, aldaketarik gabe eutsi zion bere moneta politikari. Inflazioa alde batera utzita, orokorrean hilean zehar ezagaturiko makro-datuak joera positiboa izan zuten. Normalizatzeko ari den hazkuntza ekonomikoaren erakusten zuten, baina, edonola ere, tasa handiak erakusten dituen hazkuntza. EEBBetan, salmenta txikizkariak eta industria ekoizpenak esperotakoa gaingindu zuten. Europan, hiruhilekoko BPGren hazkuntza hamarren bat igo zen aurreko hiruhileko BPGrekin konparatuta. Asian, industria ekoizpenak gora egin zuten Txinan, eta bigarren mailan geratu zen Txinako higiezin sektorearen likidezia krisiak sorturiko kezka, Evergrande promotoreak hirugarren aldiz

default-a saihestu ondoren, deskontu garaian. Politikaren arloan, EEBBetan alderdi biko bilioi bat dolarreko azpiegitura plana onartu zen azkenik. Gainera, Parlamentuak argi berdea eman zion Bidenen 1,7 bilioi dolarreko gastu sozial eta klimatikoaren lege proiektuari. Lege hori banatuta dagoen Senatuan eztabaidatuko da. Japonian, Kishida Lehen Ministroak zerga pizgarrien multzo berri bat iragarri zuen, 490.000 milioi dolarreko gastu errekorrekin, Japoniako ekonomia susperraldi ahula bultzatzeko helburuarekin. Osasun arloan, alde batetik kasuen olatu berriak eta Europaren zati batean konfinamenduak itzultzeak, eta, bestetik, Omicrom deituriko mutazio berriaren arriskuak buruzkoak argitaratu izanak, berriro ere mahai gainean jarri zuten egiaztapen bat, alegia, oraindik ere denbora askoan biziko garelako Covid 19ri loturiko arriskuekin. Ingurune honetan,

Nasdaq-100 indize teknologikoa izan da onik atera den bakarra, eta % 1,80 gehitu zuen hilaren amaieran; bitartean, S&P% -0,83 jaitsi zen eta Dow Jones indizea % -3,73. Europan, jaitsierak ere nabarmenagoak ziren. Eurostoxx 50 indizea % -4,41 jaitsi zen, eta lbexa ia bikoitza (% -8,31). Gainerako merkatuetan, Japoniako burtsa % -3,71 jaitsi zen eta goraka ari diren merkatuak, orokorrean, % -4,14. Errenta Finkoan, hilaren amaierako zatira arte, tasa amerikarrek gora egin zuten, baina, hala ere, birusaren aldaera berria iristearrekin, azkenean % 1,44 arte jaitsi ziren. Hamar urterako Alemaniako tasa % -0,35era arte jaitsi zen, ekonomia periferikoek beren diferentzialak areagotu zituzten Alemaniaren kontra, eta errenta finko pribatuak bere kreditu diferentzialak areagotu zituen. Dibisetan, dolarrak aurrerapenekin itxi zuen euroarekiko.


Errenta Aldakorrean posizio nagusiak

(zuzeneko esposizioa)

AKTIBO	PISU
KUTXABANK BOLSA SECTOR. FI	%9,84
KUTXABANK BOLSA TENDENCIAS FI	%6,23
KUTXABANK BOLSAS EMERG. FI	%2,97
ACCIONES DASSAULT SYSTEMES	%0,97
ACCIONES FERRARI	%0,48
ACCIONES NEMETSCHEK SE	%0,45
ACCIONES SOITEC	%0,45
ACCIONES WOLTERS LUWER	%0,45
ACCIONES SARTORIUS AG VORZUG	%0,45
ACCIONES IMCD NV	%0,43

Errenta Aldakorreko zorroaren banaketa sektoriala

(zuzeneko esposizioa eta zeharkakoa)



Dokumentu honen helburua da informazioa ematea, eta ez da inola ere kontratu-dokumentu bat, gomendio bat, aholku pertsonalizatua, eskaintza edo eskaera. Ezin da hartu edozein inbertsio-erabakirekin aurretik kontsultatu behar den legezko informazioaren ordezkoatza, eta legezko informazio hori izango da nagusi desadostasunik sortuz gero. Inbertsioak merkatuaren gorabeheresi lotuta daude, baita baloreetan eta beste finantza-tresna batzuetan inbertitzeari dagokion beste arrisku batzuei ere. Beraz, Pentsio Fondoaren eskurapen-balioak eta errentagarritasunak goranzko zein beheranzko aldatuak izan ditzakete, eta baliteke inbertitzaile batek ez berreskuratzea hasieran inbertitutako zenbatekoa. Pentsio Fondoaren informazio-dokumentu guztiak (hala nola Oinarritzko Datuen Agiria, Inbertsio Politikaren Printzipioen Adierazpena, aldizkako informazioa, inbertsioen xehetasunak, etab.) entitate merkatuzaitzaileen webgunean kontsultatu daitezke.

Etekin potentzial txikiagoa.	Etekin potentzial handiagoa.
Arrisku txikiagoa.	Arrisku handiagoa.
1	2
3	4
5	6
7	

Kutxabank Burtza Globala Pentsio Fondoaren arrisku-maila 6 da, 1etik 7rako eskalaren barruan. Aurreikuspen hori fondo bakoitzaren ondarea inbertituko den aktibo-moten bilakaera historikoan oinarrituta egin da. Horrez gain, aurreikusitakoaren arabera fondo bakoitzaren ondarea inbertituko den aktibo-moten bilakaera historikoan oinarritu da. Hala ere, arrisku-maila bakoitza inoiz alda daitekeenez, adierazlea neurri estatikoa da eta ez du aurreitazio iritzirik eskaintzen planen etorkizuneko arriskuari buruz.

•• Prestazioa kobratu edo berreskuratu ahal izango da soilik pentsio-planen eta pentsio-fondoaren araudian araututako likideziazko aparteko gertaeraren edo balizkoren bat gertatzen bada.
 •• Lekuz aldatzeko eskubideen, prestazioen eta likideziazko aparteko balizkoren balioa pentsio-fondoaren aktiboaren merkatuko balioaren arabekoak dira eta galera nabarmenak eragin ditzakete.
 Indarreko araudiarekin bat etorrita, Pentsio Plan bakoitzeko partaidearentzako Oinarritzko Datuen Agiri bana dago, horiek guztiak www.kutxabank.es webgunean argitaratuta.
 Kutxabaneko Pentsio Planen eta horietako bakoitzari lotutako arrisku-indizearen kontsulta hurrengo webgunean egin daiteke: www.kutxabank.es/pentsioplanak

KUTXABANK PENTSIÓ PLANEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Kutxabank Pentsio Plan desberdinen artean zure aurrezkoa askatasunez mugitzeko aukera, zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- Konfiantza Kutxabanken. Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- Onurak Kutxabaneko beste produktu batzuetan (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako pentsio plana denez, **PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitezke.**

GAINERA, KUTXABANK BURTSA GLOBALA PLANAK HONAKO ONURA HAUEK IZANGO DITU:

KUDEAKETA PROFESIONAL AKTIBOA, inbertsioak merkatuen inguruabarretara egokitzeko. Eta **OROKORRA**, dibertsifikazio geografiko eta sektorialarekin.

ARRISKUAREN KONTROLA. Aktiboaren analisi eta jarraipen etengabea egiten dugu errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka onena lortzeko.

EGUNEROKO JARRAIPENA

Espainiako ondare-kudeatzaile nagusietakoaren **ESKARMENTU ETA KALITATEA** (Kutxabank Gestión).



PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

Hasi etorkizuna planifikatzen, Kutxabank Pentsio Planekin: SIMULAGAILUA

PENTSIÓ PLANAK

Planen Erakunde Sustatzailea: **Kutxabank SA.**
 Pentsio Fondoaren Erakunde Gordailuzaina: **Cecabank SA.**
 Pentsio Fondoaren Erakunde Kudeatzailea: **Kutxabank Pensiones SAU.**